PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIAREN ZIURTAGIRIAK ZIURTATZEKO, HORIEN JARRAIPENA EGITEKO ETA BERRITZEKO ERAKUNDE ZIURTATZAILE BATEN ZERBITZUAK EMATEA

1. SARRERA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia (aurrerantzean, "**SPRI**") zuzenbide pribatuko ente publikoa da, nortasun juridiko propioa eta bere helburuak lortzeko jarduteko gaitasun osoa dituela, eta industria-politika eta enpresen lehiakortasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari atxikia. Zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikagarri zaizkien arauen eta bere estatutuen bidez arautzen da. Haren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomiaren sustapenerako politika-tresna gisa jardutea.

SPRIren xedea da:

a) Enpresa- eta industria-jarduera, inbertsioa, garapena, dibertsifikazio eta lehiakortasun industriala, berrikuntza, nazioartekotzea, informazioaren eta ezagutzaren sozietatearen garapena eta enpresako jarduera berritzailea sustatzeko planak eta programak diseinatzea eta egitea.
b) Atzerriko inbertsio industriala sustatzea balio erantsi altua duten eta enplegua sortzen duten trakzio-proiektuetan.
c) Berrindustrializatzeko edo industriako esparruan jarduteko behar bereziak dituzten Euskadiko eremuetan promozioa eta ordenamendu industriala sustatzea instituzio eskudunekin batera.
d) Jarduketa-programak eta -proposamenak planteatzea arazo koiunturalak dituzten enpresentzat, eta horren berrekitea sustatzea lanpostuak eta jarduera industrial lehiakorra mantendu ahal izateko.
e) Laguntza publikoko sistema sustatzea eta egonkortzea euskal enpresak nazioartekotzeko, eta euskal enpresak atzerrian ezartzen laguntzea.
f) Proiektu industrialen garapen lehiakorren kokapena eta garapen lehiakor egokia ahalbidetuko duten azpiegitura fisikoak eta ingurune teknologikoak sustatzea.

Helburuak betetzeko eta bere funtzioak egikaritzean, jarduketa hauek egin ahal izango ditu, besteak beste:

a) Laguntzak eta dirulaguntzak ematea, dagozkien programak eta deialdiak onartzea eta izapidetzea barne, dirulaguntzei buruzko araudiaren arabera. Dirulaguntzen programa onesteak, horiek emateari buruzko eta, hala badagokio, horiek itzultzeari buruzko ebazpenek administrazio-ahalak erabiltzea ekarriko dute, administrazio-egintzak izango dira eta administrazio-bidea agortuko dute.
b) Merkataritza-trafikoari berezko zaizkion orotariko finantza- eta ekonomia-jarduerak egitea, orotariko kontratuak egitea eta zerbitzuak ematea, hargatik eragotzi gabe Administrazio Instituzionalaren parte den aldetik aplikatu behar zaizkion arau eta baldintzak.

c) Merkataritza-sozietateen edo bestelako edozein entitateren eratzaile edo partaide izatea, baita irabazi-asmorik gabekoena ere, Eusko Jaurlaritzaren baimena jaso ondoren eta Administrazio Instituzionalari aplikagarri zaion ondare-araudiak agintzen duenarekin bat etorrita. Hala ere, ezin izango da merkataritza-sozietateen parte izan, baldin eta sozietate horietako bazkideek beraiek erantzuten badiete zor sozialei.
d) Lankidetza-hitzarmenak eta kontratuak sinatzea administrazio publikoekin eta sektore publikoko enteekin, bai eta pribatuekin ere.
e) Lankidetza-formula espezifikoak ezartzea harreman-sare bat sortzeko entitate publikoekin eta pribatuekin, euskal enpresei laguntza emateko beren nazioartekotze-proiektuetan eta atzerriko jardueran.
f) Bere eskumeneko gaiei buruzko txostenak ematea Administrazio Orokorreko organoek eskatzen diotenean; eskatu ere, industria-politika eta enpresen lehiakortasunaren arloan eskumena duen sailaren bitartez.
g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa jardutea ekonomiaren sustapenarekin zerikusia duten foro eta esparruetan, Eusko Jaurlaritzak edo arlo horretan eskumena duen sailak aginduta.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak (aurrerantzean, SPRI) kalitatea kudeatzeko sistema integratua du, arau hauen arabera:

- ISO 9001:2015, kalitatea kudeatzeko sistema;
- UNE 93200:2008, zerbitzu-kartak kudeatzeko sistema,
- 1221/2009 (EE) Europako Erregelamendua, 2017/1505 (EB) Erregelamenduaren eta 2018/2026 (EB) Erregelamenduaren arabera aldatua), ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko Erkidegoko sistema (EMAS).

2. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazioaren xedea da ziurtagiriak ziurtatzeko, horien jarraipena egiteko eta berritzeko erakunde ziurtatzaile baten zerbitzuak kontratatzea.

Aurreikusitako zerbitzuetan sartzen dira ziurtagiri edo espediente bakoitzaren jarraipen- eta berritze-auditoriak egiteko behar diren lanak, jarduerak eta produktuak. Kasu bakoitzean, aplikatzekoak diren arau eta legedi bakoitzari dagozkion berritze-aldiak hartuko dira kontuan.

Gainera, kontratatu beharreko zerbitzuan sartzen dira kontratuan jasotako ziurtagirien arauetan eta legedian izandako aldaketen ondorioz beharrezkoak diren auditoria-lan gehigarriak, kontratuaren indarraldian gertatzen badira.

3. GARATU BEHARREKO JARDUEREN DESKRIBAPENA

Oro har, enpresa adjudikaziodunak behar diren lan, izapide eta zeregin guztiak egin beharko ditu ziurtagiriak ziurtatzeko, horien jarraipena egiteko eta berritzeko, eta, hala badagokio, egokitzeko, honako espediente, irismen eta ziurtapen-arau edo lege hauen arabera:

3.1 Kalitatea, bezeroarentzako arreta-zerbitzua eta ingurumen-kudeaketa kudeatzeko sistemak (aurrerantzean, **"1. zerbitzua"**):

Sistema	Araua	EGUNGO ziurtagiria	Egungo indarraldia	Eskatutako auditoria
Kalitatea Kudeatzeko Sistema	ISO 9001:2015	ER-0318/1996 - Euskal enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntza publikoen programak eta zerbitzuak diseinatzea eta kudeatzea.	2023-07-28	1. jarraipena 2024 2. jarraipena 2025 Berritzea 2026
Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zerbitzu-karta	UNE 93200:2008	2019/0080/CDS/01 – Bezeroarentzako arreta-zerbitzua	2024-10-04	Berritzea 2024 1. jarraipena 2025 2. jarraipena 2026
Ingurumena Kudeatzeko Sistema	1221/2009 (EE) Europako Erregelamendua, 2017/1505 (EB) Erregelamenduaren eta 2018/2026 (EB) Erregelamenduaren arabera aldatua.	ES-EU-000135 - Laguntza publikoak emateko enpresa-proiektuak lagundu, aztertu, ebaluatu eta horien jarraipena egiteko zerbitzuak emateko administrazio-kudeaketa.	2025-12-19	2. jarraipena 2024 Berritzea 2025 1. jarraipena 2026

Sistema guztietarako, auditoria-planteamendu bat egin beharko da, SPRIren eguneroko jardueran izango duen eragina ahalik eta txikiena izateko, ahal den heinean.

Zeregin hauek egin beharko dituzte:

1. Egin beharreko auditoriak planifikatu.
2. Auditoriak gauzatu, dagokion arauan ezarritako betekizunen arabera.
3. Auditoriaren ondorioen txostena prestatu eta aurkeztu, eta kopia bat eman SPRIri.

Erakunde ziurtatzaileak honako dokumentazio hau helarazi beharko du zerbitzua eman bitartean:

- SPRIk eskatutako auditatu beharreko arauen kopiak (ISO 9001:2015, UNE 93200:2008, 1221/2009 (EE) Europako Erregelamendua, 2017/1505 (EB) Erregelamenduaren eta 2018/2026 (EB) Erregelamenduaren arabera aldatua), eta zerbitzuak ematen diren bitartean arau horien eguneratzeak, bai eta kontratuaren xederako interesgarriak diren beste arau batzuk ere.
- Sistema bakoitza berritu ondoren eskuratutako ziurtagiriak bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania), bai eta nazioarteko ziurtagiria ere, hala dagokionean.

3.2 1. zerbitzua emateari dagokionez egun indarrean dagoen arauaren edozein aldaketa edo irismen-aldaketa (aurrerantzean, "**2. zerbitzua**").

Kategorizazio hori aldatuz gero, arauaren irismena aldatuz gero edo araua aldatuz gero, 1. zerbitzua ematen den bitartean, eta 1. zerbitzuan aurreikusitako auditoria hutsaz gain, esfortzu handiagoa edo lan gehigarria egin behar bada ziurtagiria eta haren berritzeak

izapidetzeko, erakunde ziurtatzaileak lanaldien bidez egingo du esfortzu handiago hori, lana dimentsionatu eta bi aldeek adostu ondoren.

Zeregin hauek egin beharko dituzte:

1. Egin beharreko irismen-aldaketaren edo aldaketaren analisia.
2. Auditoriaren plangintza, hala badagokio.
3. Auditoriak gauzatzea, egin beharreko irismen-aldaketa edo aldaketa kontuan hartuta, hala badagokio.
4. Auditoriaren ondorioen txostena prestatu eta aurkeztea, eta kopia bat ematea SPRIri.

3.3 Ziurtagiri berriak (aurrerantzean, "**3. zerbitzua**"): Kontratu-aldian sor daitezkeen ziurtagiri guztiak zein diren ezagutzen ez denez, zerbitzu osagarria ezarriko da, balizko ziurtagiri berriak lantzeko.

Beharrezkotzat joz gero, SPRIk eskaeraren arabera eta konpromisorik gabe eskatu ahal izango ditu. Horretarako, kontratistaren proposamen ekonomikoan identifikatutako lanaldiko prezioak baliatuko dira, Administrazio Baldintzen Agirian ezarritakoarekin bat.

Zeregin hauek egin beharko dituzte:

1. Egin beharreko auditoriaren plangintza.
2. Auditoriak gauzatu, dagokion arauan ezarritako betekizunen arabera.
3. Auditoriaren ondorioen txostena prestatu eta aurkeztu, eta kopia bat eman SPRIri.

ZERBITZUA EMATEKO ORDUTEGIA ETA MODALITATEA

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 08:30-17:00, eta ostiraletan, 08:30-14:30.

Zerbitzua aurrez aurre emango da SPRIren bulegoetan, auditoriak egiteko beharrezkoa denean bakarrik. Kasu horretan, kontratistaren langileak kanpoko langiletzat identifikatuko dira. Beharrezkoa denean, urrutiko saioak adostu ahal izango dira.

Auditorien egutegi zehatza urte bakoitzaren hasieran antolatuko da.

4. ZERBITZUA EMATEKO BETEKIZUNAK

- Enpresak zerbitzua emateko beharrezkoak diren gailu, baliabide eta tresna teknologikoak izan beharko ditu, SPRIren estandarren arabera ezarritako baldintzetan.
- ENAC ziurtagiria eduki beharko du UNE-ISO 9001:2015 eta UNE 93200:2000 arauetan eta EMAS Erregelamenduan (1221/2009 (EE), 2017/1505 (EB) Erregelamenduaren eta 2018/2026 (EB) Erregelamenduaren arabera aldatua).
- Kontratu honen xede den zerbitzua emateko baliteke datu pertsonalak eskuratu ahal izatea, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/18 Lege Organikoaren eta 2016/679 (EB) Europako Erregelamenduaren babesean. Horrenbestez, erakunde adjudikaziodunak eta haren zereginak gauzatzeaz arduratzen diren langileek sekretu profesionala

gordeko dute kontratua indarrean dagoen bitartean eskuratu edo ezagutzen dituzten informazio, dokumentu eta gai guztiei buruz, eta behartuta egongo dira kontratuaren ondorioz edo kontratua gauzatzean ezagutzen dituzten datu guztiak jendaurrean ez jartzera edo besterentzera, baita kontratu honen indarraldia amaitu ondoren ere.

- Halaber, kontratuaren indarraldia amaitu ondoren, erakunde adjudikaziodunak SPRIri entregatu beharko dizkio datu guztiak, adjudikaziodunaren datu-baseren batean dauden zerbitzu-jardueren erregistroak, tresnak, zerbitzua eman bitartean eta zerbitzua emateko euskarri materialean nahiz informatikoan sortutako dokumentazioa eta kontratuaren xede diren zerbitzuei buruzko dokumentazioa. Era berean, bere ekipo informatikoetan egon daitezkeen eta datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak ezabatuko direla bermatuko du.

5. LANTALDEA

Lantaldea 2 auditorek (hala badagokio, horregatik eragotzi gabe positiboki baloratuko diren laguntzeko langileak ere izatea) osatuko dute, eta horietako ba proiektuaren arduraduna eta SPRIren kontratu-arduradunak izango duen solaskidea izango da. Proiektuan lan egiteko izendatu diren eta lantaldearen parte izango diren auditoreek kontratistaren enpresa ziurtatzaileak auditore gisa kalifikatuta egon behar dute, beren barne-prozeduren eta erreferentziazko nazioarteko arauen arabera, eta gauzatu beharreko lanetan esperientzia frogatua izango dute.

Halaber, hornitzaileak bermatu beharko du proposatutako taldeko kide batek (1) behintzat zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) eman dezakeela.